
Bilera mota: Ezohiko Udal Osoko Bilkura.

Data: 2014-4-28 (astelehena)

Ordua: arratsaldeko 19:00etan.

Lekua: Udaletxeko Areto Nagusia

Erreferentzia: E -14-02

Honen bitartez eta alkate jaunaren aginduz, aipaturiko ordu eta lekuan egingo den Ezohiko Udal Osoko Bilkurarako deialdia luzatzen dizut.

Ezkio-Itsaso, 2014ko apirilaren 24a

Idazkari-kontuhartzailea

AZTERGAI

ZERRENDA

- 1.- Azken sesioko akta onartzea.
- 2.- Alkatearen ebazpenen berri ematea.
- 3.- 9.-H.J.A. Hirigintza guneko Zatikako Planaren Dokumentu definitiboa behin-behineko izaeraz onartzeko proposamena.
- 4.- Galdera erreguak.

.....//.....

1-E-14-02: EZOHICO UDAL OSOKO BILKURA

2014KO APIRILAREN 28KO EZOHIKO UDAL OSOKO BILKURA

Ezkio-Itsason, bi mila hamalauko otsailaren hemezazpian.

Egun honetako arratsaldeko 19:00ak direnean, Udaletxeko Areto Nagusian Udal Plenoa biltzen da, Garikoitz Aiesta Etxaniz alkatearen lehendakaritzapean, lehenengo deialdian eta alde zurretik eta behar den eran Udalkide guztiei igorri zaien eguneko Aztergai Zerrendaren arabera.

Batzarreratzen dira honako Udalkide hauek:

- Mikel Igartua Anduaga (EIK).
- Joseba Etxezarreta Estala (EIK).
- Eneko Zabaleta Lasa (EIK).
- Ruth Idiakez Alberi (EIK).
- Ander Unzurrunzaga Idiakez (EIK).
- Lourdes Lasa Arbilla (EIK).

Ez dira agertzen, baina beren ezinetorria desenkusatzuz: inor ez.

Ez dira agertzen, baina beren ezinetorria ez dute desenkusatzuz:

- Inor ez.

Idazkari, Udaleko idazkari-kontuhartzaileak egiten du:

- Gotzon Goikoetxea Cestona.

.....//.....

2-E-14-02: EZOHIKO UDAL OSOKO BILKURA

Segidan eta Presidentearen baimenez, nik, idazkari honek, Batzarra egin daitekeela adierazten dut, zeren Udalarri dagozkion eta osatzen duten Udalkide gehienak bertaratu baitira, horrela apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 46-2 artikuluan eta azaroak 28ko 2.568/1.986 Erret Dekretuz onarturiko Toki Erakundeen Antolakuntza, Iharduera eta Legezko Jaurbidearen Erregelamenduaren 90.1 artikuluan xedatzen denarekin bat etorriz.

.....//.....

3-E-14-02: EZOHIKO UDAL OSOKO BILKURA

**LEHEN PUNTUA:
AZKEN SESIOKO AKTA ONARTZEA.**

Alkateak aditzera ematen du 2014-3-27ko Ohiko Saioko akta onartu behar dela.

Aho batez onartzen da.

**BIGARREN PUNTUA:
ALKATEAREN EBAZPENEN BERRI EMATEA.**

Udal Entitateen funtzionamendu eta antolaketa arautzen duen 2568/1986 Erregalamenduko 42. artikulua xedatutakoaren arabera, alkate jaunak azken Udal Osoko Bilkuratik aurrera eman dituen ebazpenen berri ematen dio Udal Osoko Bilkurari.

Ebazpenak: R-14-060/R-14-077 (zerrenda osoa aurkezten da).

**HIRUGARREN PUNTUA:
AIU-9 HIRIGINTZA EKIMEN EREMUKO ZATIKAKO PLANAREN
DOKUMENTU DEFINITIBOA BEHIN-BEHINEKO IZAERAZ ONARTZEKO
PROPOSAMENA**

2013ko urtarrilaren 18an behin behineko izaeraz onartu zen Alkatetzaren R-13-010 Ebazpen bidez. Jendaurrean jarri zen 20 laneguneko epean, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean 2013ko urtarrilaren 24an argitaratu ondoren. Jendaurreko iragarkiak honakoa izan ziren:

- Berria egunkarian, 2013-1-23an argitaratutako iragarkia.
- Diario Vasco egunkarian 2013-2-19an argitaratutako iragarkia.
- GAO n 2013-1-24an argitaratutako iragarkia.

Jendaurreko epean ez zen inungo alegaziorik aurkeztu. Era berean, Ezkio-Itsasoko Udalak honako txosten hauek eskatu zituen:

- URA Ur Agentziari.
- Gipuzkoako Foru Aldundiko errepide Sailari. 2013-2-7ko datarekin Bide Azpiegituretako Zuzendari Nagusiak aldeko txostena eman zuen.

2013ko otsailaren 18an sarrera izaten du Udalean URA Ur Agentziaren idatzi batek, bidali zaien dokumentazioan agiri batzu falta direla esanez.

2013ko martxoaren 25an Zatikako Planak Ezkio-Itsasoko Udal Batzarraren behin behineko onarpena jasotzen du.

.....//.....

4-E-14-02: EZOHIKO UDAL OSOKO BILKURA

2013ko maiatzaren 3an, URA Ur Agentziak Zatikako Planaren bere txostena ematen du, esanezurbanizaziotik 5 metroko gutxiengo distantzia ez dela betetzen lur ez antropizatuekiko. Beraz, bere aurkako txostena eman zuen.

URA Ur Agentziak aipatutako betebeharrak hori betetzeko, urbanizazioaren ajuste txiki bat egiten da, eta beste dokumentu bat, Zatikako Planari Separata izeneko idazten da, 2013ko maiatzean, SPRILURren aldetik. Agiri honetan PO.01-PO.04 planoak aldatzen dira eta baita Memoria agiria ere, URA Ur Agentziak adierazitako aldaketak jasoz.

2014ko urtarrilaren 14an URA Ur Agentziak bere aldeko txostena ematen du, 2013ko maiatzeko Zatikako Planaren Separatan jasotako aldaketan ondorioz.

Orain SPRILURrek aurkezten duen dokumentua, hasera batez onartu zen Zatikako Planaren gainean URA Ur Agentziaren txostenak sorrarazi zituen aldaketak jasotzen dituen da, berriro ere behin betiko onarpena eman ahal izateko.

Apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 22. artikuluan xedatzen denaren arabera, Udal Osoko Bilkurari dagokio espediente honi behin-behineko onarpena ematea; Lege horretako 47.3.1 artikuluan xedatzen denaren arabera erabakia Udaleko Udalkideen gehiengo absolutuen aldeko botuekin onartu beharko da.

Azkenik espediente osoa Gipuzkoako Foru Diputaziora bidali beharko da, behin-betiko onarpena emateko.

Gaia aztertu eta eztabaidatu ondoren, Udal Osoko Bilkurak, bertaratutakoen aho batez,

ERABAKI DU

LEHENENGOA :

AIU-9 Hirigintza Ekimen Eremuko Zatikako Plana behin-behineko izaeraz onartzea.

BIGARRENA:

2/2006 Lurzoru Legeak 95.3 artikuluan xedatutakoa jarraituz, espediente osoa Ingurumen eta Lurralde Antolaketa Sailera bidaltzea, horrela balegokio, behin-betiko onarpena eman diezaion.

.....//.....

5-E-14-02: EZOHIKO UDAL OSOKO BILKURA

LAUGARREN PUNTUA: GALDERA ERREGUAK

Ez dago.

Beterik deialdiaren helburua, 19:15ak direnean, eta aztertzeko gai gehiagorik ez dagoenez, alkate jaunak Udal Osoko Bilkura bukatutzat ematen du. Nik, idazkari bezala, akta hau idazten dut.

Ezki-Itsaso, 2014ko apirilaren 28a

O.E.
ALKATEA

IDAZKARIA

.....//.....

6-E-14-02: EZOHICO UDAL OSOKO BILKURA